



Geronimo Stilton

BIDAIA ZOROA SAGUTXISTANERA



DESTINO

UMOREA ETA BIDAIAK

Karraskari lagun maiteok,
ongi etorri nire mundura



Geronimo Stilton



Sagukaria
Erredakzioa





GERONIMO STILTON
SAGU INTELEKTUALA,
SAGUKARIKO ZUZENDARIA



TEA STILTON
ABENTURAZALE AUSARTA,
SAGUKARIKO BERRIEMAILE BEREZIA



TRIKIMAILU STILTON
GERONIMOREN LEHENGUSUA,
BIHURRI ETA MALTZURRA



BENJAMIN STILTON
GERONIMOREN ILOBA,
ATSEGIN ETA MAITEKORRA

Geronimo Stilton

**BIDAIA ZOROA
SAGUTXISTANERA**



DESTINO



STILTON JAUNA, HITZ EGIN BEHAR DUT ZUREKIN!

Goiz hartan oso aldarte onean heldu nintzen nire bulegora...

—**Eup!**—esan nuen, kapelua kakora jaurtiaz batera.

—**olé!**—erantsi nuen, berokia mugimendu zabal batez erantziz.

—**Horra!**—bota nuen amaitzeko, kafe kikara bat airean harrapatuz.

—Stilton jauna, **hitz egin** **behar dut** zurekin!

—esan zidan nire idazkariak, ni gelditzen saiatuz.

Hanka ateko heldulekuan neukan, eta

zabaldu nuenean... norbait eserita ikusi nuen nire lan-mahaian.



TELESFORO LARDASKATEGI

(Níre) lanmahaira josita, elkarrekin egin
balituzte bezala, (níre) besaulkira itsatsi-
ta, torlojuz lotu balute bezala, nire
ORDENAGAILUARI pega-pega
eginda, hanka bat (níre) te-
lefonoan eta bestea (níre)
agendan...

...sagu potolo
samar bat zegoen:
ilajea zilar-gris ko-
loreakoa, bekaina^k
iletsua^k, betaurre-
ko txikia^k altzai-
ruzkoak eta mutur
puntan diz-diz.





Nire aitona! Nire aitona Telesforo Lardaskategi, **PANZER** ezizenez, argitaletxearen sortzailea!

—Aitona! —oihukatu nuen—. Zer moduz zaude?





NOLA NAHI DUZU EGOTEA?

—Nola nahi duzu egotea? —erantzun zidan aitonak—. Lanean ari naiz, zereginak dauzkat! —jarraitu zuen, purrustaka.

Gero, telefonoa burura eramane eta oihuka hasi zen (seguraski, gortuta utzi zuen beste aldean zegoena):

—Bai, seme, *lau* esan dut, lau! Lau, L-a-u! Lau! L-a-u! Sagutxistani buruzko **4** milioi turismo gida inprimatu behar dizkidazu; mugi ipurdia, bada. Lau esan dut, lau, lau! *Laaaaaaau!*

L, Lanera! bezala.

A, Arrapaladan! bezala.

U, Ugazaba ni naiz! bezala.

Gero, barre murrizta eginez esan zuen:



Telesforo Lardaskategi, PANZER ezizenez...



—Garbitu ondo belarriak, seme; edonork esango luke *gaztaz beterik* dauzkazula!

Koitadu hark zerbait erantzun zuen.

Aitonak garrasi egin zion telefonoari, txikitu nahi balu bezala:

—**EZTA PENTSATU ERE!** —Gero, telefonoari kolpe bat eman ez eskegi eta purrustaka hasi zen berriro—: **B_{RRRR}**, taxuzko inprimatzailerik ez dago jada!

Listua irentsi eta ahots mehe batez galdetu nion:

—Aitona, nolatan hemen? Eta, barkatu galdera, baina, zertarako behar dituzu Sagutxistani buruzko lau milioi turismo gida?

Jaramonik egin gabe paperak lardaskatzen hasi zen (**níre**) lan-mahaian, (**níre**) agendan idazten (**níre**) luma erabiliz. Azkenik marmarrean esan zuen:

—*Guztia gaizki! Berriro egin beharko da!*

Une hartan, (**níre**) idazkaria sartu zen, (**níre-tzako**) kontratu batekin.



Aitonak are garrasi handiagoa egin zuen (aho-gingila ere ikusi nion, pentsa!):

—*Guztia gaizki! Berriro egin beharko da!*

Kontratua hartu, eskuen artean zimurtu eta pilotatxo bat eginda utzi zuen. Gero, katu batek bezala ^{jauzi} eginez, lan-mahaira **igo**, eta **golf-makila** txiki batez

paper-pilotari kolpetxo bat emanda paperontzira sartu zuen.

—Ona naiz, e?

—esan zuen, begia keinatuz.

Nik eta (**NIRE**) idazkariak txundituta begiratu

genion.

—Argitalpenaren sektorea **krisian** dago, **krisian**! —bota zuen.

—Aitona, gure argitaletxea **OSO ONDO** dabil! —saiatu nintzen protestatzen.

